

Finantza berregituratzea

Euskal kutxen kaudimenari
esker, interbentziorik ez

Hego Euskal Herriko aurrezki kutxek eta kreditu kooperatibek kaudimena dutela diote eta, ondorioz, administrazio zentralaren interbentzioa saihestea espero dute. Izatez, BBK-k, Kutxak eta Vital Kutxak “bateratze hotza” iragarri zuten martxoan.

DANIEL UDALAITZ

MADRILEK ezarritako finantza berregituratzea dela eta, Hego Euskal Herriko aurrezki kutxek kaudimena bermatzen dutela diote eta, beraz, ez dutela interbentziorik jasan beharko. Dakigunez, arriskuan dauden aktiboei aurre egiteko gutxieneko kapital nagusirik (*core capital*) ez duten finantza entitateak (bankuak, aurrezki kutxak eta abar) gobernu zentralak “nazionalizatze-ko” eta, gero, pribatizatze-ko arriskuan daude. Espainiako Gobernuak berriki hartu duen erabaki horri aurre egin beharko diote finantza entitate guztiek. Helburua zortzi hilabetetan kutxa ahulenak ez odolustutzea da.

Datorren irailean, arriskuagatik haztatutako aktiboei aurre egiteko %8ko kapital nagusira (%10ekoa kotizatzen ez duten enpresentzat) iristen ez diren finantza entitateak (hau da, Basilea III izeneko kontabilitate sistemaren azken helburua lortzen ez dutenak) nazionalizatu egingo dituzte. Orain arte, legeak arriskuagatik haztatutako aktiboen %2 besterik ez zuen eskatzen. Nazionalizatu ondoren, entitate horiek pribatizatu egingo dituzte eta eskaintza onenak egiten dituztenei salduko dizkiete. Gobernu zentralaren kontuen arabera, estatutak 20.000 milioi euro xahutu beharko ditu kutxen kaudimena handitzeko.

Gobernuaren ustez, tarte horretan kutxa ahulek bideragarritasuna bermatuko dieten inbertsore pri-



JUANAN RUIZ/ARGAZKI PRESS

Bateratze hotzari ekin dioten hiru kutxen lehendakariak: Carlos Zapatero (Vital Kutxa), Xabier Iturbe (Kutxa) eta Mario Fernandez (BBK).

batuak bilatu beharko dituzte, baina Gobernuak berak badaki oso zaila izango dela inbertsoreak egoitea, aktibo toxikoak direla eta. Horregatik, Gobernuak irailaren 30eko epea ipini du finantza entitateek kaudimena berma dezaten. Inbertsore pribatu horiek aurkitu ezean, nazionalizatu egingo dituzte. Hala eta guztiz ere, diru publikoa behar duten entitateen esku egongo da martxotik aurrera, beti

ere, 2010eko kontuak itxita aurkeztu badituzte.

Euskal kutxek ez dute interbentziorik beharko

Testuinguru horretan, zein da Hego Euskal Herriko aurrezki kutxen egoera? Galderari erantzun aurretik, zera argitu behar da: Gobernuak finantza entitate ahulen “nazionalizazioa” azkartzeko erabakiak aurrezki kutxei eta zenbait

Higiezin arriskua 11.000 milioi eurotik gorakoa da

Euskal aurrezki kutxen higiezin arriskua –Euskadiko Kutxa, Ipar Kutxa eta Nafarroako Rural Kutxa kontuan hartu gabe– 11.049 milioi eurokoa da eta, hala ere, kreditu inbertsioen portzentajea Espainiako Estatuko gainerako entitateen batez bestekoa baino askoz txikiagoa da. Espainiar aurrezki kutxek, batez beste, kreditu inbertsioaren %20a etxebizitzak eraikitza eta sustatza bideratu zuten. Euskal kutxen artean, aldiz, bakar batek ere ez zuen gainditu %11. Horixe adierazten dute entitate bakoitzak jakinarazitako datu ofizialek.

Hala, BBK-k, Cajasurrekin bat eginda, 44.620 milioi euroko aktibo kontsolidatuak ditu. Higiezin arriskua, berriz, 6.661 milioi eurokoa da, hau da, kreditu inbertsioaren %11. Kutxaren aktibo kontsolidatuak 20.906 milioi eurokoak dira eta higiezin arriskua, 1.307 milioi eurokoa, kreditu inbertsioaren %8,6, alegia. Vital Kutxak 9.200 milioi euroko aktibo kontsolidatuak eta 664 milioi euroko higiezin arriskua dauka, kreditu inbertsioen %10,1.

Nafarroako Kutxa, Caja Sol, Banca Cívica de Canarias eta Caja de Burgos entitateek osatutako Banca Cívica taldeak 70.963 milioi euroko aktibo kontsolidatuak ditu eta higiezin arriskua 5.417 milioi eurokoa da, hau da, kreditu inbertsioaren %11,1.

Funts hornidurei dagokienez ere, euskal kutxek Espainiako Estatuko gainerako aurrezki kutxen batez bestekoa gainditzen dute. Hala, BBK-Cajasur bikoteak 1.178,9 milioi euroko hornidura espezifikokoak (%32ko estaldura) eta 417 milioi euroko hornidura generikoak (%44ko estaldura) ditu. Kutxak 30,1 milioi euroko hornidura espezifikokoak (%28ko estaldura) eta 19,2 milioi euroko hornidura generikoak (%29ko estaldura) ditu. Vital Kutxaren hornidura espezifikokoak 129 milioi eurokoak dira (%19ko estaldura) eta generikoak, aldiz, 16 milioi eurokoak (%22ko estaldura). Azkenik, Banca Cívica taldeak 1.973,7 milioi euroko hornidura espezifikokoak (%36ko estaldura) eta 585,7 milioi euroko hornidura generikoak (%47ko estaldura) ditu.

bankuri soilik eragiten diela.

Hego Euskal Herriko aurrezki kutxetako ordezkariak (BBK, Nafarroako Kutxa, Kutxa eta Vital Kutxa) diote beren entitateak kaudimendunak direla eta, hortaz, estatuen interbentziorik ez dutela behar. EAEko hiru kutxak Espainiako Estatuko lau onenen artean daude. BBK-k fusio arriskutsua burutu du Andaluziako Cajasur entitatearekin, baina 2010. urtea %10,2ko kapital nagusiarekin itxiko duela jakinarazi du (eta eskatzen den gutxienekoa %10ekoa da). Bizkaiko aurrezki kutxa horrek arrisku aktiboei aurre egiteko %14,6ko kapitala zeukan. Cajasur erosi ondoren, 2010. urtea %10,2arekin ixtea aurreikusten du. Kutxaren

esanetan, %12,51ko kapital nagusia dauka. Vital Kutxak, aldiz, %12koa. Eta Nafarroako Kutxak –Caja Sol, Banca Cívica de Canarias eta Caja de Burgos entitateekin batuta– arriskuagatik haztatutako aktiboei aurre egiteko %9,26ko kapital nagusia du. Nafarroako Kutxaren taldeak J.C. Flowers inbertsio sozietate estatubatuarrean parte hartzeko ahalegina egin zuen, baina saioak porrot egin ondoren, talde horrek kapitalaren %15 Burtsara ateratzeko asmoa dauka.

Testuinguru honetan ulertu behar da EAEko hiru kutxek abiatutako “bateratze hotza”; oraindik zehaztu gabe dago zein banku fitxa sortuko duen bateratzeak. 80.000 milioi euroko aktiboak izango ditu.

Euskadiko Kutxa, Ipar Kutxa eta Rural Kutxaren etorkizuna

Eta zer egoeran daude gainerako kutxak: Euskadiko Kutxa, Ipar Kutxa eta Nafarroako Rural Kutxa? Aipatutako finantza berregituratzea entitate hauei aplikatzea erabakiko balute –eta hala izango dela dirudi–, Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxak behintzat erraz beteko lituzkete interbentzioa saihesteko eskakizunak, bien kaudimena egiaztatua baitago. Hala, Euskadiko Kutxak arriskuagatik haztatutako aktiboei aurre egiteko %18,84ko kapital nagusia du, eta Ipar Kutxak, aldiz, %13koa. Nafarroako Rural Kutxaren daturik ez dugu, estatuko Rural Kutxen sarearen parte baita. ■



LUAarkitektoak
 hirigintza
 hirigintza aholkularitza
 udal planak
 urbanizazioak
 periferiazioak
 balorazioak
 etxebizitzak proiektuak
 birgaitzeak
 barne diseinua...

Tel 948 13 26 97
 Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
lua@luark.com



*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenarako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390
www.solozabalautoeskolak.es



ALUMINIOA - PVC
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Karmengo Ama, 16 behea
 20012 Donostia
 Tel./Faxa: 943 298 158
 Mugikorra: 617 248 160
igoabai@hotmail.com